

"GAZTEOK EZINBESTEKO DUGU FEMINISMOA LUBAKI LEZ ULERTZEA"

Gaurtik domekara arte, Baterajotzea egingo dute Zaldibarren. Euskal Herri osoko ehunka gazte feminista batuko da bertako berbaldi, tailer eta topaketetan. Itsaso Urizar eta Maddi Sanz zaldibartarrak gogotsu daude hitzordurako / 2-3

Itsaso Urizar eta Maddi Sanz Olazarren.
Bertan egongo da Baterajotzeko kanpalekua.



Irazu Aranburuk eta Itsasne Urkiagak jantzi dute txapela Kopako lehen aldian

Erregularrenak izan dira
eta Kopako bina lasterketa
irabazi dituzte / 20



Aranburu eta Urkiaga.



Gaba Baltzaren
magia egitarau
oparoagaz helduko
da Durangaldeko
herrietara / 11



Ekaitz Herrera eta Julen Apella. ONDARROAKO UDALA

Herrerak Augustin Zubikarai
beka irabazi du; Apellak
'Sakelako bihotzak' kaleratu du / 18

Ekaitz Herrera BATERAJOTZEA

Zaldibar Euskal Herri osoko ehunka gazte feministaz beteko da asteburuan, barikutik domekara arte Gazte Feministen Baterajotzea egingo dute eta bertan. *Feminismoa lubaki* lelopean, hausnarketa, tailer, formakuntza eta kultur eskaintza zabala prestatu dute feminismoaren askotariko ertzak lantzeko. Itsaso Urizar eta Maddi Sanz zaldibartarrak pozarren daude, beren herrian bertan egingo baita Baterajotzea. Egitarauko ekitaldietan parte hartzen zein ekitaldiok antolatzen ibiliko dira.

Baterajotzea hastear da. Zer moduz urduritasun horiek?

Itsaso Urizar: Urduri baino gehiago, halako topaketa handi bat gure herrian irudikatu ezin da gabiltza. Baterajotzea Euskal Herriko beste hainbat tokitan egin da orain arte, baina Zaldibarren, gure herrian, antolatzea izugarria da guretzat. Urduri eta pozik gaude.

Maddi Sanz: Baterajotzea Zaldibarren egingo zela komentatu zigutenean, ez genuen pentsatu zelako bolumena hartuko zuen. Uste dut herritarrek aste honetan konturatu direla Baterajotzeak herriari egingo dion ekarpenaz. Hala ere, hemen zer egingo den galdetzen dabilta batzuk oraindino.

Baterajotzearen ardatza 'Feminismoa lubaki' mezua izango da. Zer landu edo irudikatu gura duzue horregaz?

M.S.: Baterajotzeak bizi dugun testuinguruari aurre egiteko eta antolatzeko balioko digu. Gazteok prekaritate egoeran gaude, politika neoliberalen bitartez zerbitzuak pribatizatzen dabilta, feminismoa despolitizatzeke hainbat saiakera ikusi dugu eta atzerriartasun lege arrazistak daude indarrean, besteak beste. Gazte feministok ezinbesteko dugu problematika horiei guztiei aurre egiteko feminismoa lubaki modura ulertzea. Zaldibarko Baterajotzea feminismoaren indar erakustaldia izatea gura dugu. **I.U.:** Gazteok feminismoan lerratzeko lan egingo dugu, baita elkarren artean saretzeko ere. Izan ere, gure artean ezagutzeko aukera bat ere izango da, lehen aipaturiko arazo guztiei elkarlanean erantzuteko.

Horretarako, egitarau oparoa daukazue prest.

I.U.: Egitaraua gaur hasiko da, barikua, 19:00etako irekiera eki-

"Baterajotzea feminismoaren indar erakustaldia izatea gura dugu"

ITSASO URIZAR ETA MADDI SANZ BATERAJOTZEKO ANTOLAKUNTZA TALDEA

Zaldibartarrak dira biak eta lehenengoz parte hartuko dute Baterajotze Feministan, non eta etxean bertan. Hausnarketa, aktibismoa eta kultura batuko dituzte ekitaldietan



Itsaso Urizar eta Maddi Sanz.

taldiagaz. Hortik domekara arte, askotariko ekitaldiak egongo dira. Tailer eta berbaldi nagusiak zapatuan izango dira. Batzuk aipatzearen, argaltasunaren araua, hezkuntza feminista, drag adierazpenak eta graffitiak landuko ditugu. Gau partean kultur eskaintza ere izango dugu. Barikuan bertso saio musikatuak eta Olatz Salvadorren kontzertuak egongo dira, adibidez.

M.S.: Horrez gainera, mobilizazioa ere egongo da zapatu arratsaldean. Herriar guztiei dei

egiten diegu bertan parte hartzera. Domekan herrira zabalduko dugu Baterajotzea. Azoka bat egongo da plazan, eta mariano musikatuak ondoan, Xerra gunean. Asteburu osorako bonua

"FEMINISMOAN LERRATZEKO LAN EGINGO DUGU, BAITA ELKARREN ARTEAN SARETZKO ERE"

erosteko aukera dago, baina dena delakoagaitik baten batek egun konkreturen batean parte hartu gura balu, barikuko eta zapatuko txartel indibidualak ere badaude salgai. Baterajotzearen Instagram kontuko biografian dago sarrerak erosteko lotura.

Egitarauak herriko hainbat bazterretara zabalduko du Baterajotzea.

I.U.: Gune nagusia gaztetxearen ondoko aparkalekua izango da. Bertan egongo da karpa handia. Gero, Olazarren, garai bateko

futbol zelaian, akanpalekua egongo da. Bestalde, gaztetxea ere erabiliko dugu, bai zapatu gauean baita tailerretariko batzuetan ere. Frontoian eta liburutegi zaharreen ere egingo ditugu berbaldietariko batzuk. Domekan herriko plazan egingo ditugu ekitaldiak.

Badakizue zenbat gazte feminista batuko zareten gutxi gorabehera?

M.S.: Lehenengo Baterajotzea Elizondon (Nafarroa) egin zen, 2021ean. Edizio hartan, 600 lagun batu ziren. Bigarren edizioa Usurbilek hartu zuen, 2023an, eta 800 lagun batu ziren.

I.U.: Egitaraua potoloa programatu dugu zapaturako, eta eskaintza musikala ere zabala da. Aurtengo edizioan, orain arteko edizioetako jende kopurua handitu gura dugu. Izan ere, Euskal Herriko hainbat eskualdetan autobusak antolatu dituzte hona etortzeko, eta kontuan hartu behar da garraio publikoak aukera handia eskaintzen duela hona etortzeko, trenen zein autobusez.

Izan zenuten aukerarik Elizondon edo Usurbilen egoteko?

M.S.: Ez. Zaldibarkoa gure lehenengo Baterajotzea izango da. Gure lehenengo Baterajotzea non eta gure herrian! Aurreko edizioetara joandako lagunak komentatu izan digute oso esperientzia aberasgarria dela. Ekitaldietan parte hartzen egongo gara, eta baita lanean ere. **Baduzue ekitaldirik begiz jota? Non ibiliko zarete?**

I.U.: Lanean ere egongo garen ez dakigu seguru noiz egongo garen libre eta berbaldiren batera joateko aukerarik izango dugun. Niri, adibidez, bitxigintza tailerrera joatea gustatuko litzaidake.

M.S.: Nik Zaintzaren Dispositibo Patriarkala aztertzeke berbaldira joan gura dut. Greba feminista orokorrak zaintzaren gaia erdigunean ipini zuen eta gai horri hainbat er-tzetatik begiratu gura diot. Bestalde, Maruxak eta Perlata taldeak ikustera ere joango gara. Edozelan ere, ekintza asko dago eta ez da erraza izango nora joan erabakitzea.



Ikusi bideoa

Feminismoaren ertz guztiak hizpide

"Ortizimuga feminista marrazteko egunak" izango zirela iragarri zuten maiatzean, eta egitaraua ikustea besterik ez dago Baterajotzeko berbaldi, tailer zein ekitaldietan feminismoaren askotariko ertzak landuko dituztela ondorioztatzeko. Barikuan zabalduko dute jardunaldi-sorta, frontoian, Euskal Herri osoko ehunka gazteri ongietorria eginda. Eta behin atea zabalduta, euskal feminismoaren genealogia aztertuko dute honako premisa hau ardatz: "Gutxi irabazten dugula dioena gezurretan dabil". Ekitaldia 19:00etan izango da. Gauean, 22:00etan, bertso saio musikatua izango dute gune handian, MEK enpresaren pareko karpan. Oihana Arana, Araitz Katarain eta Kattin Madariaga bertsolariek kantatuko dute, Aner Peritz eta Irene Ruiz de Austri musikarien doinura. Gai-jartzailea Jone Lizarralde izango da.

Berbaldi sorta

Zapatuan dozena bat berbaldi eta tailer egongo da Zaldibarren. 10:00etan ekingo diote lanari, mahai-inguru zentralagaz: *Lubaki feministatik, norantz?* Ondoren, 12:00etan, askotariko tailerrak izango dituzte gaztetxean, frontoian, karpan,

liburutegi zaharreen zein eskolan. Zaintzaren dispositibo patriarkalaz gogoeta egingo dute, eta baita Albina Stardusten eta Divina Comediaren drag tailerraz ikasi ere. Era berean, argaltasun arauari eta erresistentzia lodiei buruzko berbaldia izango dute, eta ez dira faltako protokolo feministak lantzeko tailerra eta bitxigintza tailerra.

Lan saioek arratsaldean izango dute segida, *Euskal gatazka gure ahotik* berbaldiagaz, fanzine eta idazketa tailerragaz, grafiti tailerragaz eta azkazal tailerragaz. 19:00etan mobilizazioa egingo dute Zaldibarko kaleetan, eta ekitaldia ondoren, gune handian. Afalostean kontzertuak izango dituzte gaztetxean eta karpan. Maruxak, Siwanaba, Labar eta DJ Pezon taldeak lehenengoan; eta Mikosis, Perlata eta Ganibet bigarrenean.

Domekan herriko plazara eramango dute Baterajotzea. 11:00etan azoka egongo da bertan, eta Xerra gunean marianito musikatua izango dute.

ASTEBURU OSOKO BONUA ETA BARIKUKO ZEIN ZAPATUKO SARRERA SOLTEAK IPINI DITUZTE SALGAI



2023ko Baterajotzeko jardunaldi bat, Usurbilen (Gipuzkoa). BATERAJOTZEA

Olatz Salvadorren doinura

Baterajotzearen aurtengo abestia Olatz Salvadorrek konposatu du eta musikari donostiarrak ez du hutsik egingo Zaldibarko hitzorduan. Barikuko bertso saio musikatuen ondoren igoko da eszenatokira, emanaldia egiteko.

Antolatzaileek iragarri dutenez, Zaldibar Euskal Herri osoko ehunka gazte feministaz beteko da asteburuan. Eskualde ugaritatik antolatu dituzte autobusak. Edozelan ere, autobusekin antolatu ez direnei, garraio publikoa erabilia etortzea eskatu diete, trenez zein autobusez.

Baterajotzeko saioetan parte hartzeko aukera zabalik dago. Egitasmoan parte hartu gura dutenek *entradium.com* atarian eskuratu ahal izango dituzte sarrerak. Asteburu osoko bonua 40 euroan erosi daiteke; 15 euroan barikukoa, eta 20 euroan zapatukoa.

Lubaki feministetatik "gorputzen, herrien eta bizitzaren burujabetzaren alde" batzera deitu du Baterajotzeak. Zaldibarkoa "espazio publikoa hartzeko, eta kontakizuna, autodefentsa eta konspiraziorako gaitasuna berreskuratzeko tresna" izango dela iragarri dute.

Durangaldea
OKm gida

Zabaldu zure negozioa lau haizeetara

Durangaldea OKm gida erakusleihu ezin hobea duzu eskualdeko merkataritza eta zerbitzuetan.

Jamir gurekin harremanetan konpromisoa barik
688 731 402 telefonoan

Okm:
batzen gaituen
distantzia

www.eusko.gob.es



Durangoko ordenantzak patinete arruntei zein elektrikoei eragingo die. SURPRISING MEDIA

Patineteen erabilera arautu dute Durangon

Patinete gidariek ezingo dute espaloietan eta parkeetan zirkulatu, eta debekatuta izango dute bidaiari bat baino gehiago eramatea. Oinezkoentzako gunetan 10 km/h-ko abiaduran ibili ahal izango dira gehienez, eta 15 km/h-koan bidegorrietan

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak ordenantza berri bat onartu du udalerriko patineteen zirkulazioa, elektrikoena zein arruntena, arautzeko. Araudian jaso dutenez, patinete gidariek debekatuta izango dute herriko espaloietan eta parkeetan zirkulatzea, eta abiadura mugak errespetatu beharko di-

tuzte baimendutako eremuetan. Oinezkoentzako gunetan ezin- go dute 10 kilometro orduko abiadura muga igaro, eta bidegorrietan 15 kilometro orduko abiaduratik behera ibili beharko dute. Era berean, segurtasunari loturiko beste hainbat ezaugarri ere jaso dute arauan. Bidaiariek kaskoa eta argiak (gauez)

erabilita zirkulatu beharko dute, eta pertsona bakar batek baino ezingo du bidaiatu ibilgailu gaine- an. Era berean, entzungailuak erabilita eta alkoholaren zein drogen eraginpean gidatzea guz- tiz debekatuta egongo dela go- gorarazi du udalak. Azkenik, adinari begirako ezaugarri bat ere zehaztu dute: patinete era-

biltzaileek 14 urtetik gorakoak izan beharko dute.

Lehenengo aldia da Durangon era honetako ibilgailuak arautzeko ordenantza bat sortzen dela. "Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen erabilera geroa- go eta handiagoa" delako hartu du neurria udalak, "segurtasuna, espazio publikoko ordena eta pertsona guztien eskubideak" zaintzeko helburuz. Asteon egin- dako osoko bilkuran eman dio- te hasierako onarpena araudi berriari. EAJk, PSE-EEK eta PPk erabakiaren alde egin zuten. EH Bildu abstenitu egin zen, eta Herriaren Eskubideak kontrako botoa eman zuen.

Arauk eta isunak

Oinezkoei eragozpenak eragitea saihesteko, patineteak bizikle- tentzako eta motorrentzako gu- neetan aparkatu beharko dira. Eta espaloietan aparkatzekotan, ezinbestekoa izango da hiru me- troko zabalera bermatzea eta zintarritik metro birako distan- tzia errespetatzea. Halaber, de- bebekatuta egongo da patineteok eraikin publikoetako, ikastetxee- tako, osasun zentroetako, zama- lan eremuetako, garraio publi- koko geltokietako eta taxieta- rako sarbideetan lagatzea, eta baita hiri altzarietan, bankuetan, markesinetan zein trafikoko sei- naleetan uztea ere.

Durangoko Udalak iragarri duenez, udaltzaingoak patineteak erretiratu ahal izango ditu bi-

de-segurtasunari arriskua era- giten badiote, gidariak alkohola- ren edo drogen eraginpean badaude edo ibilgailuek beha- rrezko baldintza teknikoak be- tetzen ez badituzte.

Herritarrak sentsibilizatze al- dera, kanpaina informatiboak egingo dituzte. Hasierako hileetan, zigorrik bako probaldia egongo da martxan, eta behin epe hori amaituta, arau-hausteen arabe- rako isunak ipiniko dituzte. Uda- lak aurreratu duenez, arau-haus- te arinek 100 euroko isuna izan- go dute. Horien artean egongo dira gutxieneko adinik barik edo argirik barik gidatzea eta beste bidaiariren bategaz patinete be- rean zirkulatzea. Arau-hauste larriak 200 euroko isunagaz zi- gortuko dituzte. Aurikularren erabilera, debekatutako eremu- tatik gidatzea edo "zabarkeriaz jokatzeko" zigortuko dute modu horretan. Azkenik, oso arau-haus- te larrien kasua dago, hala nola alkoholaren edo drogen menpe zirkulatzea. Kasu horretan, udal- tzaingoak 500 eurotik 1.000 euro- ra bitarteko isunak ipini ahal izango ditu. Adin txikikoen ka- suan, euren tutore legalek izan- go dute erantzukizuna.

PATINETEAK BEHAR DEN MODUAN APARKATU EZEAN, ERRETIRATU EGINGO DITUZTE

Tabirako zentro ekonomikoa "blokeatzea" egotzi diote EAJri

EH Bilduren iritziz, Durangoko Udalak "ez du aurrera egin proiektua gauzatzeko behar diren urratsetan"

Ekaitz Herrera DURANGO

Tabirako prestakuntza eta zen- tro ekonomiko berriaren gara- pena "paralisan" edukitzea le- poratu dio Durangaldeko EH Bilduk EAJri. Subiranistek Durangoko Udalaren teitlatuan ipini dute pilota: "Durangoko Udalak, EAJk gobernatuta, ez du aurrera egin proiektua gau- zatzeko behar diren urratsetan". Hiri Antolamendurako Plan Orokorra "geldituta" izatea le- poratu diote, hain zuzen ere.

EH Bilduren berbetan, Tabi- rako lurren kalifikazioa aldatu

egin behar da bertan zentro ekonomiko berria ipini ahal izateko. Hau da, azpiegitura berria Fundifes izandakoaren orubean eraikitzea aurreikusita dagoenez, koalizioaren esanetan beharrezkoa da lurren kalifikazioa industria- la prestakuntzarako lurrekin ordezkatzeko. Eta lurrok Durangon dau- denez, betebeharrak hori udalare- na dela adierazi du. Hori guzti hori dela eta, prozesua "geldi- tuta" izatea eta azpiegitura be- rriaren garapena "galaraztea" leporatu diote udalari.



Garai bateko Fundifes lantegiaren orubea.

Fundifesezko orubean presta- kuntzarako eta ekonomiaren garapenerako gunea sortzeko proiektua ez da berria. Maris- tak ikastetxeak bertan ipini gura du bere zentro berria, eta eremu horretan esku hartzekoak

dira, halaber, eskualdeko Lan- bide Heziketa ikastetxeak eta hainbat enpresa. Proiektu hori DEK Durangaldea Enpresa Ekimena elkarteak dabil gara- tzen, eta hainbat instituzio publikoren babesa du.

NAN elektronikoa eguneratzeko puntua ipini dute Durangon

E.H. ZALDIBAR

Espainiako Poliziak nortasun agiri elektronikoa eguneratzeko puntua ipini du Herritarrentza- ko Arreta Zentroan. Gailuari es- kerrak, herritarrek ziurtagiri digitalak berriztu ahal izango dituzte (dokumentuak elektro- nikoki sinatzeko edo lineako zerbitzu publikoetara sartzeko beharrezkoak direnak), baita NAN elektronikoko pasahitza modu seguruan aldatu eta NAN digital berria aktibatu ere.

Durangoko Udalaren esanetan, NAN digitalari eskerrak, he- rritarrek euren identitatea digitalki egiaztatu ahal izango dute, txartel fisikoa eduki beha- rrik barik.

Zurezko hesiak ostu dituzte Astola Bidean

Durangoko Udalak sare metalikoa ipiniko du. Era berean, ondare publikoa errespetatzera deitu du

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak jakinarazi duenez, ezezagun batzuek Astolarako bidegorriko zurezko hesiak ostu zituzten orain aste batzuk. Hori dela eta, ibilbide zati bat agerian dago momentu honetan, eta oinezkoentzat zein txirrindularientzat arriskutsua izan daitekeela eta, udalak tar- te hori konpontzea erabaki du. Sare metalikoa ipiniko dute.

Obra azaroko lehenengo astean egingo dute, 3.500 euroko aurre- kontuagaz. Udalak gertakaria gaitzetsi eta ingurune parteka- tua errespetatzeko eta zaintzeko deia egin du.



Hesiak, Astola Bidean. DURANGOKO UDALA

Durangoko kaleetako 5.900 zuhaitzen egoera aztertu dute

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak herriguneko ia 6.000 zuhaitzen erregistroa egin du, arbola bakoitzaren osasuna eta egoera zehazteko. Samuel Rubio baso-ingeniaria arduratu da azterlana egiteaz, eta, ondorioztatu duenez, herriko hainbat arbolak berehalako esku hartzea behar dute; ezkiek, bananondoek eta altzi- freek, batez ere. Madalena pla- zako ezkiek, adibidez, % 13ko karga galera dute; eta Ezkur- diko bananondoek % 20koa. Era berean, hainbat prebentzio neurriren berri eman dute. Beharrezko inausketak egin eta ainguraketak instalatuko dituz- te, herritarrak babesteko.



Musika Eskolako eta Durangoko Udaleko ordezkariak. DURANGOKO UDALA

Xabier Zeberio eta Euskadiko Orkestra, Hamabostaldian

Bartolome Ertzilla Musika Eskolak lau emanaldi antolatu ditu doinu klasikoez eta garaikideez gozatzeko

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Musika Hamabostal- dia puntako lau kontzertugaz bueltatuko da datozen asteetako kultur agendara. Euskadiko Or- kestrak zabalduko du kontzertu zikloa, *Ilargiari kantari* familia emanaldiagaz. Saioa domekan izango da, azaroak 2, San Agus- tinen, 18:00etan. Azaroaren 8an Bilboko Koral Elkartearen txan- da izango da. Koralak *O! Noche Felice!* kontzertua emango du; Valentin Zubiaurre konpositore garaitarraren piezekin osaturiko emanaldia izango da. San Anto- nioko komentuan izango da,

20:00etan. Azaroaren 23an Ensem- ble Praeteritum hari-zazpikoteak hartuko du San Agustingo ohol- tza, Antonio Vivaldiren konposi- zioak interpretatzeko. 20:00etan ekingo diote emanaldiari. Azkenik, abenduaren 13an, Xabier Zeberio eta Musika Eskolako Orkestrak amaituko dute zikloa. Zeberio eta ikasleek jazza, euskal musika herrikoa eta inprobisazio garai- kidea landuko dituzte, Irati Or- tubiaren batutapean. Kontzertua Plateruenean izango da, 19:00etan. Azaroaren 8ko eta abenduaren 13ko kontzertuak doakoak dira; beste biak, ordainpekoak.

Landako Guneak Erdi Aroko azoka hartuko du asteburuan

Barikutik domekara, akrobazia eta su ikuskizunak, gastronomia, folk musika eta artisautza egongo dira

Ekaitz Herrera DURANGO

Landako Guneak mende batzuk atzeragoko itxura hartuko du asteburuan, Erdi Aroko azoka egingo dute-eta bertan. Hiru egunez, bisitariek artisautza eta gastronomia postuak, kale ikus- kizunak, kalejirak, umeentzako tailerrak eta akrobazia eta su ikuskizunak izango dituzte, doan. Azokak barikuan zabalduko ditu ateak, 18:00etan.

Barikuko ikuskizunen artean, folk musika (20:00) eta *Ilargi eklipsea* akrobazia ikuskizuna daude (20:45). Era berean, arti-

sauen herrixka eta zaharberri- tzeetarako gunea ere egongo dira. Zapatuan *Inkisizio santua* (13:30) eta *El Persa* ikuskizunez gozatzeko aukera egongo da, baita musikaz eta gastronomia postuez disfrutatzeko ere. Egu- neko beste hitzorduetariko bat *Dafneren hegaldia* akrobazia ikuskizuna izango da (20:45).

Domekan umeentzako asto- txoak, Hontoriotarrak taldearen emanaldia (19:00) eta kalejira egongo dira. Destellos de Histo- ria elkarteak antolatu du azoka, udalagaz batera.

Garaiko kiroldegia urtarrilean erabilgarri egotea gura dute

E.H. GARAI

Oraingoz ez dago data zehatzik, baina asmoa argia da: Garaiko Udalak 2026ko urtarrilean zabal- du gura du kirol azpiegitura ber- ria. Azken hileotan kirol insta- lazioa atontzen ibili dira. Fron- toiaren eta bolatokiaren arteko eremuan altxatu dute eraikina. Instalazioa 80 metro karratu zabal izango da, eta, ariketa fisikoa egiteko lekua izateaz gainera, materiala gordetzeko lekua ere izango du. Kirolariak zein herri- ko dantzariak bertan gorde ahal izango dute euren materiala. Al- dagelei dagokienez, kiroldegiko erabiltzaileek frontoiko dutsak erabiliko dituzte, azpiegitura biak lotu dituzte eta.

Otxandio pediatria zerbitzua bermatzea eskatu dio Osakidetzari

A.B. OTXANDIO

Otxandiarrek Legution dute pediatria zerbitzua, baina azken asteetan lanpostua hutsik dago eta Osakidetzak ez du ordezkori- rik bideratu. Udalak jakinara- zi duenez, "horrek eragozpen eta kostu gehigarriak sortzen ditu ume eta gurasoentzat, atze- rapenak eta arrisku egoerak ere bai, premiazko arreta ezin- bestekoa denean". Guraso kal- tetuek 150 sinadura aurkeztu dituzte udalean.

Legution "behar den besteko lanaldia" duen pediatra bermatzea eskatu dio udalak Osakidetzari, eta arazoa konpontzeko premia adierazi, "osasun arreta egoki eta hurbila bermatzeko".

Jardunaldi Pedagogikoak

Zornotzan

PERTSONEN GARAPENEAN BIDEAGUN

4

AZARORAK

Akonpainamendua

irakasle, guraso eta komunitatea bideagun

12

AZARORAK

Komunikazioa

akonpainamendurako gakoak

HIZLARIAK

Olatz Berastegi • Ana Itzegi • Eñ Altzagarre • Nerea Mendizabal

Zelaieta Zentroan, 17:30ean

Hitzaldiak doakoak eta irekiak izango dira, familia zein profesionali bideratuak.

Zaintza eta gaztelararako itzulpen zerbitzua

IZEN-EMATEA

URRUN IRISTEKO, CERTU.

Azkenik Zornotza, 10:00

'Arkalaz mugitu', Zornotza osasuntsuagoa bultzatzeko

Zornotzako Udalak jarduera fisikoko plan pertsonalizatuak eskainiko ditu 'Arkalaz mugitu' programaren bitartez; Osasun Plan Integrala izango denaren lehenengo urrats garrantzitsua da Zornotzako Udalaren esanetan: "Plan aitzindaria da hau"

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Zornotzako Udalak 'Arkalaz mugitu' plan aitzindaria martxan ipini du. Plan integral baten lehenengo urrats lez definitu du Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak. "Osakidetzaren eta Eusko Jaurlaritzaren Mugiment programaren babesagaz, urrats garrantzitsua eman dugu gure herritarren osasuna eta ongizatea hobetzeko", azaldu du. Horrela, Zornotzako Udalak jarduera fisikoko plan pertsonalizatuak eskainiko ditu. Amaia Zabala izango da zerbitzu horren orientatzailea, eta Osakidetzako profesionalek ere aktiboki parte hartuko dute programan, herritarrek bertara bideratuta. Zornotzar guztiek dute programan parte hartzeko aukera, eta Zabalagaz hitzordua zehazteko amaia.zabala@mugikon.com helbidera idatzi edo 670 363 972 telefono zenbakira deitu behar da. "Jarduera fisikora eta herritarrek lortu gura dituzten osasun helburuetara egokitutako ari-



Udal ordezkariak egitasmoaren antolatzaileekin.

keta plan bat diseinatuko da, eta, ondoren, jarraipena egingo zaio", sakondu du Zabalak. "Kontua ez da bakarrik jarduera fisikoa hobetzea, gaixotasunak prebenitzeko eta bizimodu osasungarria izateko laguntza in-

tegrala eskaintzea baino", gehitu du Sonia Cabeza Gizarte ekintzako zinegotziak. Hain zuzen ere, aurrera begira nutrizioaren alorrean ere sakondu gura dute 'Arkalaz mugitu' programan.



Andramari Ikastola.

Akonpainamendua aztergai izango dute Andramari Ikastolan

Azaroaren 4an eta 12an jardunaldiak egingo dituzte Zelaia zentroan, Andramari Ikastolak antolatuta

A. M. ZORNOTZA

Bigarren urtez, Zornotzako Andramari Ikastolako komunitateak hezkuntzaren arloan dauden erronkei buruzko gogoeta egiteko jardunaldi pedagogikoak antolatu ditu. Aurtengo edizioan *Pertsonen Garapenean Bidelagun* izango da jardunaldien leloa, eta hezkuntzak, familiak eta komunitateak pertsonaren garapenean duten eragina izango dute aztergai. Azaroaren 4an, Harremanak elkarteko kide diren Olatz Berastegi eta Ana Elozegi izango dira hizlariak, eta akonpainamendua izango

da lehenengo saio horren ardatza; ondoren, Eli Altolagirrek Onki programa aurkeztuko du. Bigarren saioa azaroaren 12an izango da eta komunikazioa landuko dute bertan. Nerea Mendizabal izango da hizlaria bertan. Mendizabal komunikazio ez-bortitzean aditua da eta komunikazioak hartu-emanetan duen garrantziaz mintzatuko da; entzule aktiboa izateak eta aserbitateak edukitzeak duen garrantzia nabarmenduko du. Berbaldiak doakoak eta zabalak dira, baina aurretiaz izena ematea gomendatu dute antolatzaileek.

San Pio kaleko berrurbanizazio lanak hasi dituzte Elorrioren

Proiektuak goitik behera aldatuko du Elorrioko sarrera nagusia; lanek urtebete irautea aurreikusten dute



Elorrioko San Pio kalea.

A. M. ELORRIO

Elorrioko Udalak legeingintzaldi honetako proiekturik handienetarikoa bati ekin dio. Hain zuzen ere, San Pio kaleko berrurbanizazio lanak hasi dituzte aste honetan. Proiektu anbiziotsua da, bai zenbaki aldetik, baita duen eraginagaitik ere. Udalak 1.830.177 euroko inbertsioa egingo du lan hauek aurrera eramateko. Lanek urtebete irautea aurreikusten du Elorrioko Udalak eta horrek ere eragina izango du egunerokoan. Berrurbanizazioagaz herriko sarrera nagusia aldatu egingo da eta horrek eragin urbanistikoa ere izango du. "San Pio kalearen berrurbanizazioak herrigunearen eta auzoen arteko lotura hobetuko du", azaldu du udalak. Lanek irauten duten bitartean, kalea itxita egongo da ibilgailuentzat.

Bigarren urtez, Zientziaren Astea antolatu dute Berrizen

Urriaren 31n eta azaroaren 3an eta 6an egingo dituzte ekitaldiak, Umerri eskola aktiboan eta institutuan

A. M. BERRIZ

Berrizko Umerri eskola aktiboan Zientziaren Astea egingo dute. Bigarren urtez antolatu dute ekimena bertan, Berrizko Udalen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz. Tailerrak irekiak dira, baina izena eman behar da bertan parte hartzeko; horretarako, 639 128 432 telefono zenbakira deitu behar da. Bihar, zapatua, Estitxu Txurruka biologo eta ikerlariak emango du tailerra, 17:00etan; mikroalgen munduaz arituko da. Bestalde, azaroaren 3an, Usue Aspiazu

eta Iñaki Lopez EHuko irakasleak fisikako tailerra emango dute Berrizko institutuan. Jardunaldiak borobiltzeko, azken ekitaldia azaroaren 6an egingo dute, eguenagaz. 16:30ean hasita, Hegoi Escudero eta Iñaki Narbaiza erlezainek erleak zaintzeko tailerra emango dute Umerri eskolan bertan. Ondoren, 17:30ean, Nasstasja Cipriani matematikari eta Fisika Teorikako doktoreak *¿Qué género de ciencia? Aportaciones feministas para una ciencia más justa* berbaldia emango du.

OSASUN GIDA

**Podologia**
PSE: 214/06



OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel/Faxa: 946 215 404

**Odontologia**
PSE: 26/22



DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordulekuak:
Astelehenetik ostegorria: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larrietara: 10:00ak hartuta

946 14 80 36 | 626 18 30 30
Asteasuñe bidean 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

**Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA •
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMONO) ETA
IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PADI •
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO
ESKANERRA (TERO ETA CBCT)

(Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango)
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

**Fisioterapia**
PSE: 119/13



ZAINDUZ
Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Solo pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskumak
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

**Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO
pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

**Naturopatia eta Homeopatia**

Aurora Julià

HOMEOPATIA • NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218
Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus



**Psikologia**



Hezkuntza zailtasunak

Hezkuntza zailtasunen
diagnostikoa eta esku-hartzea,
diskalkulian adituak.

613 038 933
Andra Mari, 16 1D Durango

**Psikologia**



Heiduak - nerabeak - haurrak

- Zure buruan konfiantza sendotzeko •
- Estresa kudeatzeko •
- Zure hamermanak hobetzeko •

ONLINE ETA AURREZ-AURRE

613 05 38 62
Andra Mari, 16 1D Durango

**Optometria**
PSE: 162/13

NAIA ZABALA
AIZMENDI
11567 xol. 19



keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKAIDIE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEXUAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIBRO IKUSMENA • GARUNEKO LESHAK • UKOPEN LENTEAK
- DITO K. ETA MIOPAREN KONTROLA

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel: 946 225 099
www.keinuoptometrizentroa.com

Igogailu publikoari tarteko irteera egiteko lanak, martxan

Aste honen hasieran hasi dituzte igogailu publikoari tarteko solairua egiteko lanak. Lanen helburua inguru horretako bizilagunen irisgarritasuna hobetzea da. Frontoiaren eta elizaren artetik doan bidexka Euskalerrria 3 kaleko atariraino luzatuko dute



Igogailuari tarteko solairua aterako dioten tokia.

Joseba Derteano ATXONDO

Atxondoko Udalak asteon hasi ditu Euskalerrria kaleko bizilagunen irisgarritasuna hobetze-

ko lanak, ohar batean jakinarazi duenez. Hain zuzen ere, proiektuaren helburu nagusia kale horretako 3. zenbakian bizi

direnen eguneroko mugikortasuna erraztea da.

Lanak fase bitan banatuko dituzte. Lehenengo fasean, igogai-

lu publikoari tarteko solairu bat aterako diote, bizilagunek igogailutik zuzenean sarbidea izan dezaten euren atarira. Irisgarritasun lanak ere egingo dituzte. Horrez gainera, atzeko aldean, frontoiaren eta elizaren artetik doan bidexka arkuperraino luzatuko dute, ohatilak eta anbulantziak bertara errazago ailegatzeko, besteak beste. Bidexka hori asfaltatu eta hobetu egingo dute, eta ingurua ere urbanizatuko dute; berdegune batzuk egingo dituzte, besteak beste.

Udalak Estudios y Obras Rekalde enpresari esleitu zizkion lanak azken udalbatzarrean. Aurrekontua 223.426 eurokoa da, eta horietatik 26.881 euro diru laguntzen bitartez estaliko dituzte. Aste honen hasieran hasi dituzte lanak, eta lau hila-beteko egikaritze epea dute.

Bigarren faseko lanak

Bigarren fase batean, urbanizazio lan gehiago egingo dute eskola eta eliza inguruan. Horrez gainera, BI-4332 errepidetik eskolara doan bidean, alde batetik espaloia kendu egingo dute eta eremu horretan aparkaleku berriak egingo dituzte.

“Proiektu honek bizilagun askoren egunerokoa erraztu gura dugu, eta, aldi berean, ingurua atseginago eta erabilgarriago bihurtzea dugu helburu”, adierazi du Joseba Urresti Atxondoko Udaleko hirigintza arloko zinegotziak.

Batuz sistema zelan erabili azalduko dute Atxondon

Bizkaiko elkarteak Aldundiak bultzaturiko plataforma erabiltzen hasi behar dira 2026an

J.D. ATXONDO

Atxondoko Kultura Mahaiak berbaldi bat antolatu du *Nola eragingo digu Batuzek?* izenburupean. Hitzaldia azaroaren 6an izango da, 18:00etan, eskolako eraikin zaharrean. La Tercera Pata elkarteak adituek emango dituzte azalpenak.

Elkartei zuzenduriko berbaldia da, baina antolatzaileek argitu dutenez interesa duten denentzat dago zabalik atea: autonomoentzat, norbanakoentzat...

Batuz Bizkaiko Foru Aldundiak bultzaturiko plataforma edo sistema informatikoa da, tributazioa kontrolatzeko eta gestioetan laguntzeko estrategia lez ezarritakoa. Elkarteek 2026ko urtariletik aurrera erabili beharko dute sistema hori. Bide horretan, Batuzen ezaugarriak azaltzea da berbaldiaren helburua, eta herriko elkartei plataforma egoki erabiltzeko gakoak eskaintzea.

Fosroc enpresako langileek greba mugagabea hasiko dute

Izurtzako enpresaren jardura Toledora lekualdatu gura dute. Ondorioz, 22 langile kalean geratuko lirateke

J.D. IZURTZA

Izurtzako Fosroc enpresako langileek greba mugagabea hasiko dute astelehenetik aurrera, Saint-Gobain multinazionalak aurreikusitako 22 kaleratzeen aurrean. Orain arte hainbat greba egun egin dute, azkenekoak eguen eta bariku honetan, baina datorren astetik aurrera beste urrats bat emango dute greba mugagabea hasita.

Sindikatuaren esanetan, atzo arratsaldean enpresa komiteak batzar bat izan zuen Saint-Gobainen Espainiako ordezkaria-

gaz eta Toledoko Chryso Aditivos lantegiko kide batez. Izan ere, Toledoko Villaluenga de la Sagra herriko enpresa horrek Fosrocen produktu antzekoak egiten ditu eta multinazionalak hara eroan gura du Izurtzako jardura. Hain zuzen ere, Fosroceko zazpi langile Toledora tokialdatu gura dituzte eta 22 kalean geratuko lirateke. Saint-Gobainek urte hasieran erosi zuen Fosroc, erakuntzarako produktu kimiko espezializatuak ekoizten dituen enpresa.



Fosroc enpresako langileak protestan greba egun batean. LAB DURANGALDEA

Ursula Doneako kideek Hontza Museoa bisitatuko dute azaroan

J.D. MAÑARIA

Azaroa ekimenez beterik dator Mañarian. Eurretari batean, Ursula Donea adinekoen elkarteko kideek Hontza Museoa bisitatuko dute. Azaroaren 13an ipini dute natur-zientzien museora joateko hitzordua, 17:00etan.

Museoan aurkituko dituzten 2.000 piezetatik batzuk berriak dira, gainera. Esaterako, orain aste batzuk Ozeanografic Valenciatic marrazo adardun baten Ooteka bat jaso zuten, erakunde bien arteko lankidetzari eskerrak. Ooteka hainbat animaliak osaturiko arrautza-multzo bat da, kasu honetan marrazo espezie txiki batena. Ootekak espiral itxura du.

GREMIOEN GIDA

Zurgintza

leike Eraberritzeak
Interiorismoa:
Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leike.eus
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf: 94 681 72 29

Zurgintza

ATERPE ARROTZA
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar
635 74 84 65
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua, Industrialdea, 45 Garala A - BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 - Mug.: 658 758 421
info@jaioabarnizatuak.com
www.jaioabarnizatuak.com

Elektrizitatea


ELECTRICIDAD JON

622 684 284
electricidadjon@outlook.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA - Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

 **UNAI
GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es



**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

AZAROKO ZOKKETAK

*Zozketa hauetan
parte hartzeko eman
izena gure webgunean.



Xiberu tabernan
bi gosari bikoitz.
Zornotza.



Aukan izozkiak.
6 izozki edo etxera
eramateko 1/2
litroko 2 tarrina.
Durango.



BASA take away
jatetxeko bi gazta
tarta razio. Zaporeak
aukeran: gazta tarta
labean, pistatxo, kitkat,
mango, oreo, lotus
edo pantera rosa.

URRIKO IRABAZLEAK

Aukan izozkiak
Iker Padilla Larrañaga
Basa take away
Antxon Urizar Camarero
Xiberu taberna
Josune Nazabal Larburu
Maite Gorritxategi Retolaza

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Probalekuko argazki bat. ABADIÑOKO UDALA

Probalekua asteburuetan zabaltzeko asmoa dute Abadiñon

Lan hauek egitea herritarrek aurrekontu parte hartzaileetan lehenetsi zuten; 100.000 euro erabiliko dituzte horretarako

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Udaberrian Abadiñoko Udalak martxan ipinitako prozesu parte hartzailea azken fasera heldu da. Udalak jakinarazi duenez, herritarren ekarpenekin probalekua biziberritzea izan da asmoa, eremu hori estalitako aisialdirako gunen dinamiko eta bizi bihurtzeko. Jasotako proposamenak aztertu eta gero, honako lan hauek egingo dituztela azaldu dute: harmailetako lehenengo lerroetan baranda desmontagarri bat ipiniko dute, beheko ohol-tzaren egitura berriztuko dute, arrapala bat ipiniko dute, alda-

gela berri bat eta dantzarien materiala gordetzeko gunen bat egingo dituzte, olana bertikal bat ipiniko dute probalekua konpartimentutan banatu ahal izateko, eta, azkenik, probaleku barruan eta kanpoan soinu-immisioa neurtzeko azterketa egingo dute. Bestalde, hobekuntza lanak egin eta gero, herritarrek proposatutako probalekua asteburuetan zabaltzeko dela jakinarazi du udalak. Dagoeneko martxan ipini dituzte horiek aurrera eramateko kontratazioak. "Ahalegina egingo dugu neguan zabaltzeko", esan du udalak.

Zabalik dago aurrekontuetako proposamenak jasotzeko epea

Azaroaren 12ra arte egongo da aukera aurrekontu parte hartzaileetako proposamenak egiteko

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Udalak 2026ko Aurrekontu Parte Hartzaileen lehenengo fasea ipini du martxan. Prozesu horri eskerrak, proposamenak egiteko eta erabakitze-ko aukera emango zaie herritarrei. Gainera, udalak jakinarazi du aurrekontuaren egin duela proiektuak gauzatzeko zenbatekoa: 150.000 euro erabiliko dituzte horretarako.

Lehenengo fasea martxan da dagoeneko eta 16 urtetik gorako abadiñarrek parte hartu ahal izango dute, azaroaren 12ra bitartean. Proposamenak udal bulegoetan, Errotan, Mediatekan eta pertsona nagusien zentroetan aurkeztu daitezke. Baita *partehartu.abadiño.org* webgunearen bitartez ere.

Epe hori amaitu eta gero, udalak proposamen guztiak aztertuko ditu eta beharrezko baldintzak betetzen dituztenak azken bozketara pasako dira.

Gandiaga banaka eta Claveria eta Ruiz bikoteka nagusi Mallabian

Asteburuan Mallabiko frontenis maratonia jokatu zen; 24 bikote eta banaka 16 parte hartzaile aritu ziren



Bikotekako irabazleak.

M.Z. MALLABIA

Asteburuan Mallabiko frontenis maratonia jokatu da. Zapatuan bikoteka aritu ziren, eta domekan banaka. Zapatuan 24 bikote aritu ziren, eta txapela Adrian Ruiz bilbotarrak eta Jose Claveria nafarrak eskuratu zuten. Bigarren postua Asier Galarza eta Jesus Dominguez nafarrek lortu zuten, eta hirugarrena Arkaitz Martinezek eta Diego Romerok.

Domekan banakako maratonia

Bestalde, domekan 16 parte hartzaile izan ziren frontenis maratonia, eta Jon Gandiaga ermuarrak lortu zuen txapela. Gandiagak 18-11 irabazi zion Xabier Lezeta otxandiarrari. Hirugarren postua Markel Sierrarentzat izan zen. Bilbotarrak Jesus Dominguez iruindarra mendean hartu zuen.

Gaba Baltzaren magian sartuko da Durangaldea

Beldurrezko pasabideak, arimen etorrera, kalabazak, dantzaldiak, moztorroak... gaurko iluntzetik aurrera, magiaz eta beldur giroz jantziko dira eskualdeko kaleak. Elkarteek eta eragileek ekintza ugari antolatu dute euskal Gaba Baltza ospatzeko

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Gaba Baltza Halloween eta Ameriketako Estatu Batuetako iruditegia ailegatu baino lehenagokoa da Euskal Herrian, eta aurren ere eskualdeko elkarte ugari lan egin du hemengo Gaba Baltza, arimen gaua, berreskuratzeko eta oraindino gehiago sendotzeko. Eguzkiaren azken errainuak lotaratzeaz batera, Durangaldeko kaleak moztorroz, kalabazaz eta askotariko ekitaldiz beteko dira.

Durangon Arimen etorrera irudikatuko dute Tabiratik Santa Anara. Behin plazara helduta, ikuskizuna egingo dute. Elorrión, Atxondon eta Abadiñon beldurrezko pasabideak antolatu dituzte, eta Garain kalabazak hustutzeko eta etxeko izarekin moztortzeko tailerra antolatu dute. Iurretarrak mezu misterioetsuekin jolastuko dira, eta txokolate beroa hartuta amaituko dute gaua. Mallabian *Iluntasuna piztu* ekitaldia egingo dute, eta herrian zehar kantuan ibiliko dira,



Durangoko familia bat, iaz, Gaba Baltza ospatzen. BERBARO

txorizodun opila eta salda beroa lagun. Mañariarrek arimen ibilaldia egingo dute lehenengo, eta kanpaldia gero, goizaldera arte. Otxandion hilerrirako txangoa antolatu dute, eta Kokomarroen

dantza ere egingo dute plazan. Berrizen antifaz eta kriseilu tailerra egingo dute. Zornotzan disko festa eta desfilea. Ekitaldi guztiak Agenda atalean kontsultatu daitezke.

Berbalagunen sukaldaritza saioa Goierriko elkarteak

E.H. ZALDIBAR

Sukalde saltsetan ibiltzea gustuko dutenek eta euskaraz berba egiteko gai direnek hitzordu apropos-aproposa izango dute Zaldibarren. Berbalagunek sukaldaritza saioa antolatu du azaroaren 6rako. Berrikerari sukaldariak zein sukaldari berritsuak Goierriko elkarteak batuko dira, 19:30ean, euskarazko kozinatze saioari ekiten. Jardunaldi zabala izango da, hau da, parte hartzaileek ez dute zertan Berbalagunen izena emanda egon. Nahikoa izango dute euskararen trebatu gura izatea edo hizkuntza jakitea. Saioa arrakastatsua bada, jardunaldi gehiago antolatuko dute. Izen emateak, 688 722 989 telefonoan.

Jose Luis Maiztegi zinegotzi kargua hartu du Zaldibarren

Marian Trejok dimisioa eman zuen iraileko osoko bilkuran, eta haren lekua hartu du Maiztegi, asteen

E.H. ZALDIBAR

Aste honetako osoko bilkuran Zaldibarko udalbatza berriro egin da. Jose Luis Maiztegi zinegotzia (EAJ) taldera batu da, Marian Trejo jeltzaleak iraileko osoko bilkuran dimisioa aurkeztu eta gero. Maiztegi ez da berria Zaldibarko Udalean. Herriko alkate izan zen 2019tik 2023rako legealdian. "Ilusio handiz" bueltatu da politikagintzara. "Laneira nator, eta lagundu ahal dudaneurrian lagunduko dut", adierazi du. Eneritz Azpitarte alkateak ongietorria egin dio Maiztegi.



Jose Luis Maiztegi. ZALDIBARKO UDALA



Berdinsarea(H)abian egitasmoaren aurkezpeneko irudi bat. IURRETAKO UDALA

'Berdinsarea(H)abian' programa aurkeztu dute Iurretan

Eudelek eta Emakundek bultzaturiko programak herri txikietan berdintasunerako politikak garatzea du helburu

A. Basauri IURRETA

Berdinsarea(H)abian ekimenaren martxan ipini dute, 7.000 biztanleraren arteko herrietan berdintasunerako politika publikoak ezartzen eta finkatzen laguntzeko ekimenaren. "Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bete dadin erraztea du helburu Eudelek eta Emakundek bultzaturiko egitasmoak, eta, hartara, herritarren % 100arengana helduko dela bermatzea. Esther Apraiz Eudeleko presidentek eta Miren Elgarresta Emakundeko zuzendariak aurkeztu zuten egitasmoa, joan zen

astearen, Oskar Koka Iurretako alkateagaz batera. 7.000 biztanleraren arteko 194 udalerrietako ordezkariak politikoagaz (EAEko biztanleen % 76) egindako topaketaren buru izan ziren hirurak.

"Sarritan, herri txikietan, erronka bereziak izaten ditugu. Txikiak izateagatik baliabide gutxiago edo gaitasun txikiagoa dugula uste dugu. Baina hone-lako programek guztiz kontrako frogatzen dute: indarra batuz, ezagutza partekatuz eta sarean lan eginez, ekintza-gaitasuna handitu egiten da", esan zuen Kokak.

LABek Iurretako Tecnicarton-eko langile baten kaleratzea salatu du

"Langileen eskubideen eta sindikatuaren kontrako ekintza zuzena" dela nabarmendu du sindikatuak

A.B. IURRETA

Iurretako Arriandiko industrialdean dagoen Tecnicarton enpresan, Langileen Batzordea osatzeko hauteskundeetarako LABen hautagaia izan behar zuena kaleratu dutela salatu du sindikatuak. "Argi dugu kaleratze hau langileen eskubideen eta LAB sindikatuaren kontrako ekintza zuzena dela. Ez dugu onartuko horrelako errepresio-rik, eta langile hau berriro onartzea eskatzen dugu", azaldu dute LABeko ordezkariak prentsa ohar batean.

LABek salatu duenez, joan zen urriaren 23an kaleratu zuten langilea, hurrengo astelehenean, "urriaren 27an, egin behar zen mahai osaketan sindikatuaren hautagaitzarik egon ez zedin", salatu dutenez. LABek azaldu du aurreabisua aurkeztu zuela Eusko Jaurlaritzan, Langileen Batzordea osatzeko hauteskundeak egiteko. Aurreabisuan, langileen ordezkari izateko hautagaia nor izango zen zehaztu zuten. Tecnicarton enpresan 26 langile daude eta grafikagintza sektorekoa da.

Durangaldeko Ikerlari Gazteen bekarako deialdi berria, zabalik

Gerediaga elkarteak Durangaldeko Ikerlari Gazteentzako Bekaren deialdi berria zabaldu du. Saria 1.500 eurokoa da

Durangaldea ARITZ MALDONADO

Gerediaga elkarteak Durangaldeko Ikerlari Gazteen Saria ipini zuen martxan 2022an. Bosgarren deialdi honetan, 2026ko ekainaren 14rako aurkeztu beharko dituzte lanak.

1.500 euroko saria irabazteaz gainera, Astola aldizkarian ikerketa lanaren laburpena argitaratzeko aukera emango zaio irabazleari. Ikerketa gaiak edo arloak Durangaldean kokaturikoak izan behar dira eta

artikulu, poster akademiko, ikus-entzunezko edo podcast formatuan entregatu daitezke. Bakarkako lana edo taldekakoa izan daiteke, baina eskatzaileak Durangaldean bizi edo ikasi beharko du. Eskatzaileek gerediaga@gerediaga.eus helbide elektronikora bidali beharko dituzte lanak.

Iaz, Pello Zabarte zaldibartarrak jaso zuen saria, *Bitor Garitaonandia. Euskal Pizkundean dagokion lekuaren bila* lanagaitik.



lazko irabazlea, Pello Zabarte, erdian.

DURANGALDEA ASTEON



Giro paregabea Durangoko II. Mendi Martxan

DURANGO Durangoko II. Mendi Martxak hainbat mendizale batu zuen domekan. Alpino-Tabira mendi klubak ibilbide bi prestatu zituen. Ibilbide luzea egin zuten mendizaleak Artabilla, Etxano, Mañaria, Inungan, Obako Atxa (852 metro), Mugarrikolanda, Pagasarri (838 metro), Marmol, Neberondo eta Bitañotik ibili ziren. Ibilbide laburra aukeratu zutenek Artabilla, Etxano, Etxaburu dorre, Neberondo eta Bitaña zeharkatu zituzten.

6.000 euro baino gehiago Palestinari laguntzeko

DURANGALDEA Durangoko Mendibeltz eta Gu Lagunak areto futbol taldeek Palestinaren alde dirua batzeko egindako kanpaina arrakastatsua izan da. 569 kamiseta saldu eta 6.247 euro batu zituzte. "Ez genuen espero halako erantzunik. Berba bakarria daukagu esateko: eskerrik asko", adierazi dute sare sozialetan. Baturiko dirua UNRWA agentziari emango diote.

GUTUNA

Imajinatzen...

ELEDER ITURRIETA ZUGADI
TXISTULARIA

Imajinatzen eguzkirik gabeko udaberririk, euririk gabeko negurik edo kolore gabeko ortzadarrik?

Imajinatzen txistu soinu gabeko ekitaldirik, kulturarik gabeko herririk edo euskararik gabeko Euskal Herririk?

Imajinatzen Mugarrarik gabeko paisaiarik, urik gabeko Ibaizabalik edo durangarrik gabeko Durangorik?

Imajinatzen ahotsik gabeko orfeoirik, metalik gabeko musika bandarik edo musikari gabeko musika eskolarik?

Imajinatzen txistularirik gabeko ohorezko aurrekurik, platillu gabeko dantzarik edo artorik gabeko artopilik?

Imajinatzen txistulari gabeko dianarik, Patxikotxu eta Pantxike gabeko jairik edo durangar txistulari gabeko San Faustojaietako 30. Durangoko Txistu Kontzerturik?

Oharra: eskerrik asko Silboberri txistu elkarteari imajinatutakoa errealitate bihurtzeagatik. Bejondeizuela!

Zure gutuna helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - lurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO
Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

POLITIKAN



JESICA RUIZ
PSE-EE

Etxebizitza eta datu objektiboak

Etxebizitza da herritarren kezka nagusia, eta horrek alderdi politiko guztiak kezkatzen ditu. Baina gai horrek batzuk beti kezkatu izan gaitu, ez bakarrik modan jartzen denean. Hona hemen datu objektibo batzuk: Durangoko etxebizitza hutsen azterketa 2018an egin zen, PSEk bultzatutako udal enplegu plan baten bidez. Urte horretan bertan, gazteentzako alokairuko etxebizitzetako buruzko ordenantza egin zen, eta 6 etxebizitza sozial alokairuan jarri ziren. 2019tik 2023ra ez da ezer egin etxebizitzaren gaia dagokionez. Legegintzaldi honetan etxebizitza tasatuen ordenantza onartu da, eta gainera, Alokabiderek hitzarmen bat sinatu da San Fauston babes sozialeko 16 etxebizitza alokairuan eskaintzeko. Horri lotuta, kanpaina bat egingo da herritar guztiei Biziguneren berri emateko. Bizigune programaren bidez, zure etxebizitza alokairu babestuen merkaturaren sartuko litzateke Eusko Jaurlaritzaren bitartez, eta hilero errenta kobratuko dela bermatuko da, baita etxebizitza egoera onean itzuliko dela ere.

Datu objektiboak: Durangon, 2023/12/31n, erroldatutako 1.045 pertsonak eskatu zuten etxea, 707 alokatzeko eta 338 erosteko. 2025/07/31n, berriro, erroldatutako 1.242 pertsonak egin zuten etxebizitza-eskaera; horietatik 809k alokatzeko interesa agertu zuten, eta 433k erostekoa.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Marketina: Defne Izaga Yeregui.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.




LAGUNTZAILEAK



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



LABIRINTOA




MARGOTU

Margotu gurago duzun moduan



ZENBATU

Irudi bakoitzetik zenbat aurkitu ditzakezu?



SEGIDA

Zein irudi dagokio hurrengoari?



"Entzuleek bihotza betetzeko moduko feedbacka eman digute"

JON GARCIA ZABALA GAR PROIEKTUA

MUSIKA Jon Garcia durangarraren GAR proiektuak 'Oraina eskuetan' lan luzea aurkeztu du. Azaroaren 16an debuteko kontzertua emango dute, Oñatin, eta Durangon abenduaren 7an joko dute, Azokako Ahotsenean



Martzel Vargas, Asier Ardanza, Jon Garcia eta Liher Granados. SARA ESTEBEZ

Aritz Maldonado DURANGO

Hilabete batzuk joan dira Jon Garcia Zabala durangarrak bere proiekturik pertsonalena ezagutarazi zuenetik. Hain zuzen ere, Mocker's taldea lozorroan sartu eta denbora batez isilik egon eta gero, udaberrian

lau abesti kaleratu zituen GAR izenpean. Mocker's taldearen doinu espazial, erritmo aldrebes eta abesti luzeetatik alden du, eta melodia itsaskorrek eta doinu intimoagoak erakutsi zituen lau kanta horietan. Oraintsu kaleratu duen diskoa-

ren aurkezpen gutuna izan ziren horiei lau abesti gehiago batu eta disko osoa kaleratu du GAR-ek: *Oraina eskuetan*. Zortzi abestik osatzen dute lana. Abenturaren bigarren zati honetan ere, bidelagun izan ditu Liher Granados (baxua), Asier

Ardanza (bateria) eta Martzel Vargas (gitarra), eta harro dago, GAR proiektura batzeaz gainera ekarpen humanoa eta musikala egiten diotelako.

Zelako harrera izan dute kaleraturiko lehenengo abestiek?

Musikari dagokionez, jenderik gehienak Mocker's taldeagaitik ezagutzen nau, eta, beraz, GAR proiektuagaz egindako aldaketak izango zuen eraginaren beldur nintzen, estilo aldetik aldaketa nabarmena izan delako, batez ere. Baina, egia esateko, abestiek oso harrera ona izan dute, entzuleek bihotza betetzen duen feedbacka eman digute eta baita indar eta gogo handiagoa ere aurrera egiteko.

Mocker's zaleek zelan hartu dituzte abesti berriak?

Gatx da galdera horri erantzutea. Argi dago Mocker's-egaz egiten genuen musika izerdiz, pasarte desberdinez eta pintzelkada psikodelikoz beteta zegoela, eta GAR, ostera, sakontasunaren, samurtasunaren eta nostalgiaren eskutik doa, energia eta eztanda puntu batzuk ere aurkitu daitezkeen arren. Ondorioz, Mocker's-en jarraitzaileek rockeroenek behar bada ez dute musika hau hain gustuko izango, aldaketa handia delako. Pop-rock musika da eta entzule berrien gustukoa izan daitekeelakoan nago. Ni neu pertsonalki oso rockeroa izateaz gainera, oso poperoa ere banai zela aitortu behar dut.

Abesti berrietan norabide berari jarraitu diozu?

Bai, aurreko lau abestietan jarraitu diodan bide berberari. Abesti berriak konposatzen nabilela aurreratu dezaket, eta oinarrian orain argitaratutakoen antza duten arren, gorputza mugitzera animatzen duten detaileak gehitzen nabil; zuzenekoetara doazenek hauetariko batzuk entzun ahal izango dituzte.

Lehenengo abestiek izandako harrerak baldintzatu egin dute konposaketa?

Lehenengo lau abestiak grabatzera joan ginenean, beste laurak ia amaituta zeuden. Azken detaileak falta ziren, eta, beraz, ez, estudiora bueltatu ginenerako ez ginen baldintzatuta edo presiopean sentitu. Zeozer esatekotan, kontrakoa esango nuke, hau da, lehenengo abestiek izan duten harrera onak bigarren txanda honetarako oraindino gehiago motibatu gaituela.

Zelan baxutik gitarrarako aldaketagaz?

Oso gustura eta eroso sentitzen naiz gitarragaz. Betidanik jo izan dut gitarra, nahiz eta Mocker's-en baxua jotzen aritu naizen. Hain zuzen ere, hain hiru urteagaz kuadrillako lagun batzuekin lehenengo musika taldea sortu genuenean (Kuarto Asalto), abesteaz gainera gitarra jotzen hasi nintzen; beraz, baxua edo gitarra eskuetan izateak zoriontsu egiten nau, aukeran bigarrena gura go dudan arren.

Eta zelan taldekideekin?

Denbora aurrera joan ahala, taldekideen artean dagoen konfiantza handitzen doala igartzen nabil, eta hori oso seinale ona da. Geroago eta gusturago gaudu, hobeto elkar ulertzen dugu eta bide onetik goazen seinale da hori. Zorioneko sentitzen naiz, maila handiko musikariz inguratu naizelako orain ere, baina, dudarik barik, taldekide hauen balio pertsonalak pozten nau gehien. Ez da ohikoa hain estilo desberdinetatik etorritako musikariek hain ondo bat egitea, eta horregaitik harro sentitzen naiz Liher, Asier eta Martzel GAR proiektura batzeaz.

Disko osoa kaleratuta, baduzue zuzenean aurkezteko asmorik?

Bai, 2025ean kontzertu bi joko ditugu, oraingoz; lehenengoa azaroaren 16an, Oñatin, eta bigarrena Durangoko Azokako Ahotsenean, abenduaren 7an. Bien bitartean, 2026an emango ditugun kontzertuen datak lotzen eta antolatzen gabilta. Hala ere, kontzertu hauen inguruko xehetasun eta data berrien informazioa gure Instagrameko kontuaren bitartez (@garmusika) zabaltzen joango gara; beraz, gure abestiak gustuko badituzue, gure kontzertuetara joatera animatzen zaituztegu.

Ekaitz Herrerak Augustin Zubikarai beka irabazi du

LITERATURA Epaimahaiak Ekaitz Herrera abadiñarraren 'Hondar batean arre' proiektua saritu du; Herrerak urtebeteko epea du liburua publikatzeko; iaz Julen Apella berriztarrak irabazi zuen saria eta oraintsu 'Sakelako bihotzak' eleberria kaleratu du

A. M. ABADIÑO / BERRIZ

Ondarroako Literatur Amuak jaialdiak eskualdeko hiru izen ekarri ditu aktualitatera: Ekaitz Herrera abadiñarrarena, Julen Apella berriztarrarena eta Amaia Trejo durangarrarena. Lehenengoak Augustin Zubikarai nobela bekaren aurtengo edizioa irabazi du, *Hondar batean arre* proiektuagaz. Herrerak 60 urteko Mattin lore saltzailearen istorioa kontatu gura du eleberrian, haren "gainbehera eta goraldia". Elkar argitaletxeko iturriek honela deskribatu dute kontakizunaren abiapuntua: "Negozioa txarto doala eta, Mattinek kalean ikusiko du bere burua, eta bizileku berri bat topatuko du ikasle-pisu batean. Ia berrogei urte gazteagoak direnekin bizitzen ikasi beharko du, haien kodeak ezagutu, ohitura berrietara ohitu. Eta, horregaz batera, bizi osoan inoiz maitemindu ez den eta hori zer den ere ez dakien gizonak bere burua hobeto ezagutu eta



Ekaitz Herrera eta Julen Apella. ONDARROAKO UDALA

deskubrituko du, eta bizitzaren etapa berri bati ere ekingo dio". Ana Urkizak, Leire Bilbaok eta Xabier Mendigurenek osatu dute epaimahaia. Herrerak 8.000 euroko saria eskuratu du, eta urtebetean nobela publikatzeko konpromisoa hartu. Herrera

ANBOTOk kazetaria da. Iaz Julen Apella berriztarrak irabazi zuen Augustin Zubikarai nobela beka, eta urtebeteren ondoren *Sakelako bihotzak* eleberria kaleratu du. Bestalde, Amaia Trejo durangarrak nanoipuin 14. edizioa irabazi du.



Aitor Bizkarra, Jone Uria alboan duela. BERTSOZALE ELKARTEA

Saioa irabazita, Bizkarra bigarren finalaurrekoetan da

BERTSOLARITZA Abadiñoko probalekuan egingo dute Bertsolari Txapelketako bigarren finalaurrekoa, domekan

A. M. ABADIÑO

Hasi dira Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoak. Asteburuan Zeanurin izan da lehenengo finalaurrekoa eta Aitor Bizkarra abadiñarrak batu du punturik gehien. Honenbestez, zuzenean sailkatu da txapelketako bigarren itzuliko finalaurrekoetara. Saio berean, Bittor Altube abadiñarrak 547 puntu batu zituen eta seigarren amaitu zuen; beraz, beste finalaurrekoetako puntuazioen zain egon beharko du hurrengo saioetara sailkatuko den jakiteko. Bertsotzez lepo

bete zen Zeanuriko frontoia, 525 sarrerak salduta.

Domekan Abadiñon izango da bigarren finalaurrekoa. Bertan bertsotan egingo duten sei bertsolarien artean, Gorka Pagonabarraga durangarra eta Txaber Altube abadiñarra daude. Probalekuan izango da saioa, 17:00etan.

Bestalde, aste honetan Bertsolari Gazteen 33. BBK Sariaketa aurkeztu dute. Lehenengo kanporaketa azaroaren 3an izango da, Bilbon. Finala abenduaren 5ean egingo dute, Zornotzan.



GAÍ LIBREAN

GARAZI ARRIZABALAGA CABRERIZO DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOKO ZUZENDARIA

Isilaraziak XXV

Durangoko Immigrazio Sailak emakume afrikarrentzako tailer bat jarri du martxan museoan. Hiru astez, Nigeriatik etorritako 14-15 emakume etorriko dira museora, eta Karina Senatore diseinatzaileari esker Afro-etorkizunaren kartografia lantzen dute. *Collage* teknikaren bidez afrofuturismoa deritzon artea jorrazten dute. Arte korronte hau 1950eko hamarkadan sortu zen AEBetan, eta indarra hartu zuen 1990ekoan. Bere helburua, arraza beltzeko pertsonen egoera zaurgarria salatzeaz gain, haiei buruz jaso dugun ikuspegia berrinterpretatzea da.

Emakume hauek museora ekarri eta artearen bitartez beraien egoeraz hausnartzea benetan ikaragarria da. Karina Senatorekin zenbait hitz trukatu ondoren, konturatu nintzen zein gutxi dakidan europarrak ez diren artistei buruz. Begirada europarrarekin ikasten dugu artearen historia, eta artista horiek dira museo nagusietan lekua dutenak. Baina zer gertatzen da

beste kontinenteetako artistekin? Eta bertako emakumeekin?

Ez dit denbora askorik kendu Interneten bilaketa azkar bat egiteak, zenbat emakume afrikarren lan interesgarriak dauden ikusteko. Izen batzuk emango dizkizuet, eta beraiei buruzko informazioa bilatzea

EMAKUME ARTISTEI BURUZ GUTXI BADAIGU, ZER ESAN EUROPARRAK EZ DIREN EMAKUMEEI BURUZ?

proposatzen dizuet; ez zaituzte epel utziko: Esther Nikwambi Mahlangu, bere eskala handiko eta etxeen portadetako margoez ezaguna; Bertina Lopes, 'pintura beltza' kontzeptuaren kontra egindako lanagatik, egoera zaurgarrian dagoen jendearen bizimodua irudikatuz; Safaa Erruas, bere instalazio zuri delikatuak; Younousse Sèye, Senegaleko lehen emakumea izan zen École nationale des arts-en ikasketak burutzen; eta beste hainbat emakume.

Zutabe hau aprobetxatu nahi dut Durangoko Udaleko Immigrazio Saileko teknikaria den Verónica Redondo zoriontzeko. Lan izugarria egiten duen emakumea da, askotan isilean, baina emaitza garrantzitsuekin. Eskerrik asko, Verónica, Nigeriako emakumeei museoan beraien txokoa eskaintzeagatik eta gu guztiok hausnarketa garrantzitsu batera eramateagatik: emakume artistei buruz gutxi badakigu, zer esan europarrak ez diren emakumeei buruz?

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 31

ABADIÑO Gaba Baltza
Trikitilariekin kalejira Gaztetxera, 16:50etan. Gero txokolatada. Ginkana, 18:00etan (HH eta LH). Eske-kantua herrian zehar, Gerbas Kantak musikatuta, 19:00etan. Joxpa taldea, 20:00etan, Txanportan. Etxe sorgindua (7 urtetik gora). *Probalekuan (19:00-20:00).*

ABADIÑO Kontzertuak
The Velvet Bullets
Zelaietako jubilatuen tabernan, 21:00etan.

ATXONDO Gaba Baltza
Kalabazak hustea (frontoian) eta aurpegiak margotzea (plazan), 16:30ean. 'Ama, amama, mamuak' (Naita produkzioak), 18:00etan, gimnasioan. Ibilbide beldurgarria, 19:15ean, Gaztetxetik (LH1etik gora). Sorgin Dantza eta txokolatea, 20:30ean. Beldurrezko filma, 21:15ean, eskolako eraikin zaharrean (12 urtetik gora). *Atxondon.*

DURANGO Gaba Baltza
Arimen etorrera Tabiratik, 19:30ean. Ikuskizuna, 20:00etan, Santa Ana plazan (euriagaz, Andra Marian). Gozategi. *Plateruenean, 22:00etan.*

DURANGO Magia
'Denok dugu magia' (Liuba Magoa). *Otamotzena auzogunean, 17:30ean.*

DURANGO Azoka
Erdi Aroko Azoka, 18:00etan. *Landako Gunean, azaroaren 2ra arte.*

DURANGO Kontzertua
Datorren barikuan Janus Lester taldea entzuteko aukera egongo da Durangon. Jokin Pinatxok zuzenduriko taldeak *Lore* diskoan baturiko abestiak aurkeztuko ditu, besteak beste. *Azaroak 7, barikuan, Plateruena kultur aterpean, 22:00etan.*

DURANGO Erakusketa
'Bizkaia beti-betik'. *Ezkurdi plazan, azaroaren 6ra arte.*

DURANGO Erakusketak
'Andra Mariko elizpea. Durangoko bihotza' eta 'Goren Sakona' (Ros Boisier) *Arte eta Historia Museoa, azaroaren 16ra arte.*

ELORRIO Gaba Baltza
Beldurrezko pasabidea, Txintxirri ikastola, 17:00etan. Gaba Baltza Bitxikerien Kahoot-a, 17:00etan, Gazte Gunean. Kalejira plazaraino, 18:30ean. Aurpegia margotzea, dantza, beldurrak idazteko txokoa eta gaztaina erreak. *Plazan.*

ELORRIO Erakusketa
Eskulturak Elorrioko Kaleetan. *Iturri kultur etxean, abendura arte*

ELORRIO Musika
Inoren Ero NI. *Ateneoan, 22:30ean.*

GARAI Arimen Gaua
Kalabaza prestaketa eta mozorro tailerra (izara eroan). Ondoren, herriko arimak esnatzera. *Otea Loran elkartean, 18:00etan.*

IURRETA Gaba Baltza
Tailerrak, 18:00etan, plazan. 'Mezu misteriotsuaren bila', 19:00etan. Ondoren, Beldurrezko ibilbidea. Amaitzeko, txokolatea. *Abadetxean.*

IURRETA Kontzertua
Gomez Sound. *Korta tabernan, 20:00etan.*

MALLABIA Gaba Baltza
Ginkana, 16:30ean, Kontzejuzarretik. Kalabazak hustu eta aurpegiak margotu, 17:30ean, Kontzejuzarrean. Photocall-a, plazan. 'Iluntasuna piztu', 18:30ean, plazan. Ondoren, Kantu Erronda. Txorizodun opila eta salda beroa. 'Maradikaostiok!' antzezlan (Ruben Markina). 16 urtetik gora. *Plazan, 20:00etan.*

MAÑARIA Gaba Baltza
Makillaje tailerra, 18:30ean. Txistorrada, 20:00etan. Arimen ibilbidea eta ipuin kontalaria, 21:00etan. Gero, txokolatea eta beldurrezko etxea. Gauean kanpaldia. Biharamunean, gosaria eta mendi buelta. *Plaza inguruan.*

OTXANDIO Gaba Baltza
Kalabaza tailerra, aurpegi margotzea, tatuajeak eta eskulanak, 17:00etan (eroan goilara eta labana). Beldurrezko pelikula (LH3tik gora), 17:30ean, ludotekan. Ipuin kontalaria (LH3tik behera), 18:15ean, Bolalekuan. Arimak esnatzera hilerria, zarata egiteko tresnekin, 19:00etan. Kokomarroen dantza. Gero, salda, gaztain erreak, taloak eta kalabaza pisutsuaren apustua. *Plazan, 20:00etan.*

ZORNOTZA Arimen Gaua
Photocall-a eta 'Ziria eta saria' (17:00-20:00), ludotekan. Makillaje txokoa (17:30-19:30) eta zaurien tailerra (19:30-21:30), Gazte Txokoan. Gau Desfilea, 20:00etan.

Kandelak eta gaztainentzako saskiak egiteko tailerrak (17:30-19:30), Zelaietako karpan. Esna Gazte disko festa. *Zelaietako karpan, 19:30ean.*

ZORNOTZA Antzerkia
'Feliz día' (Sutottos konpainia). *Zornotza Aretoan, 20:00etan.*

ZAPATUA 1

BERRIZ Erakusketa
'Gailurretan izan gaitun'. *Liburutegi zaharrean.*

DURANGO Antzerkia
'Itzulera' (Dejabú konpainia). *San Agustín kulturunean, 19:00etan.*

GARAI Erakusketa
'Biribilak mendietan. Seles, kortak, saroiak'. *Elizabarrin, azaroaren 1ean eta 2an.*

DOMEKA 2

ABADIÑO Kontzertua
Marell. *Amaraun Arte Fabrikan, 13:30ean.*

ABADIÑO Bertsoak
Bizkaiko Bertsolari Txapelketa: Aitor Etxebarriazarraga, Enare Muniategi, Gorka Pagonabarraga, Maite Sarasola, Txaber Altube eta Unai Mendiburu. Gai-jartzailea: Igor Menika. *Probalekuan, 17:00etan.*

DURANGO Musika
'Beer & Vinyls'. *Miñe tabernan (12:00-17:00).*

DURANGO Musika
'Ilargiari kantari' *San Agustín kulturunean, 18:00etan.*

DURANGO Musika
'O! Noche Felice' (Bilboko Koral Elkartea). *San Antonio komentuan, 20:00etan.*

EGUENA 6

BERRIZ Berbaldia
'Indarkeria gineko-obstetrikoa'. Hizlaria: Nahia Alkorta Elezgarai. 'Mi parto robado' liburua aurkeztuko du Sabeletik Mundura webgunearen



JANUS LESTER

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Karmele
Domeka 2: 19:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Los tigres
Barikua 31: 18:00, 20:30. Zapatua 1: 16:45, 19:00, 21:30. Domeka 2: 17:00, 19:30. Astelehena 3: 18:00, 20:15. Martitzena 4: 18:00, 20:15. Eguaztena 5: 19:00.

Esa cosa con alas
Barikua 31: 18:00. Zapatua 1: 17:30, 21:30. Domeka 2: 18:00. Astelehena 3: 18:00, 20:15. Martitzena 4: 18:00, 20:15.

Together
Barikua 31: 18:00, 20:30. Zapatua 1: 19:30, 21:30. Domeka 2: 20:00. Astelehena 3: 20:15. Martitzena 4: 20:15.

Los domingos
Barikua 31: 20:30. Zapatua 1: 19:00. Domeka 2: 19:30. Astelehena 3: 17:45. Martitzena 4: 17:45. Eguaztena 5: 19:00.

Super Charlie
Zapatua 1: 17:00. Domeka 2: 17:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Romeria
Zapatua 1: 20:00. Domeka 2: 20:00. Astelehena 3: 20:00.

Kayara. Inka gerraria
Domeka 2: 17:00.

ZALDIBAR

LIBURUTEGI ZAHARREAN

Txilarreko sukaldaria
Eguena 6: 18:00. (Liburua ere aurkeztuko dute)

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

La vida de Chuck
Zapatua 1: 20:00. Domeka 2: 20:00. Astelehena 3: 20:15.

Sketch, cuidado con lo que dibujas
Zapatua 1: 17:00. Domeka 2: 17:00.

Girls will be girls (J.B.G.A.)
Martitzena 4: 19:00.

sortzaileak.
(Izena ematea: 603 837 471).
Kultur Etxeko atzealdean, 17:00etan.

ZORNOTZA Jaiak
Pintxo potea (19:00-22:00). Triki kantu dantza soinu txikiagaz, 19:00etan, Lopenatik. Zornotzako otxotea, 20:00etan, Antxetan hasita. *Luis Urrengoetxea kalean.*



Irazu Aranburu eta Itsasne Urkiaga txapela jantzita, Elorrioko Aldapegora lasterketan.

J. Derteano DURANGALDEA

Itsasne Urkiaga Mugarra (Zornotza, 1995) eta Irazu Aranburu Antxia (Mallabia, 2001). Hauexek dira Durangaldeko Koparen lehenengo aldiko txapeldunak. Kopako bina lasterketa irabazi dituzte; Aranburuk hasierako biak, 7 Pago eta Amaraune, eta Urkiagak azkenengo biak, Aramotz eta Aldapegora.

Kopa egitea denboraldi hasierako helburu legez zeneukaten?

Irazu Aranburu: Nire kasuan, bai eta ez. Kontua da nik urtero egiten ditudan probak Kopa barruan daudela. Neurri batean, Kopan aritzea nire egutegiaren ondorioa da. Baina, era berean, Kopako sailkapen nagusia ere izan dut buruan, bai.

Itsasne Urkiaga: Niri beste hainbeste gertatu zait. Beti parte hartu izan dut Kopako lasterketarik gehienetan. Amaraune eta Aldapegora salbuespenak dira eta Kopagaitik parte hartu nuen horietan.

Kopa joan zen asteburuan amaitu zen, Aldapegoragaz. Zuk, Irazu, matematikoki irabazita zeneukan eta sariaren bila baino ez zinen joan Elorriora.

I.A.: Horixe esaten nien, brome-tan, han zebiltzanei. Giroan egon, apur bat jan, eta karrerarik egin barik txapela etxera! Baina, tira, hori horrela izan zedin aurretik izerdi apur bat bota behar izan dut beste lasterketa batzuetan. **Esaterako, lehenengo bietan, Mallabiko 7 Pagon eta Berrizko Amaraunen. Biak irabazi zenituen.**

"Kopak korrikalari asko erakarri du"

IRAZU ARANBURU ETA ITSASNE URKIAGA DURANGALDEKO KOPAKO IRABAZLEAK

MENDI LASTERKETA Erregularrenak izan dira eta bina lasterketa irabazi dituzte. Aranburu aldetxoagaz nagusitu da sailkapenean; Urkiagak azken metroraino borrokatu behar izan du

I.A.: Denboraldi hasieran oso indartsu nengoen, inoiz baino indartsuago, baina karreretan gauzak ez zitzaizkidan irteten gura nuen moduan, harik eta 7 Pago eta Amaraune irabazi nituen arte. Gero, dena esanda, hasierako lasterketetan amaierakoetan baino maila baxuagoa izan zela uste dut.

Itsasne, zuk ez zenuen Irazuren zortea izan eta Elorrioren txapela izan zenuen jokoan. Emakumeetan sekulako lehia izan duzue azken unerarte.

I.U.: Leire Uribe, Nora Narbaiza, Lola Oyarzabal, Zutoia Odriozola eta bostok azken unera arte

I. ARANBURU:
"HASIERAN OSO INDARTSU NENGOEN, INOIZ BAINO INDARTSUAGO"

ibili gara borrokan. Horregaitik parte hartu nuen Elorrioren. Ibilbideak ere motibatzen ninduen, Udaltx igotzen da eta. Sorpresa izan zen irabaztea.

Ez zenuen irabaztea itxaroten?

I.U.: Ez. Nora Narbaiza ere bazegoen Elorrioren, eta urte hasieran nire aurretik sailkatzen zen beti. Ez nintzen Elorriora joatekoa, baina lagun batek ahalgina egitera animatu ninduen eta parte hartzea erabaki nuen. Oso ondo sentitu nintzen.

Kopako azken txanpan bereziki indartsu aritu zara Aramotz eta Aldapegora irabazita.

I.U.: Urteko helburua Gorbeia Suzien izan da. Aurten lasterketa luzean parte hartu dut eta horixe prestatzen ibili naiz udan. Banekien Gorbeia Suzien proba nekagarria zela eta ondo erre-kuperatzea gatz zela Kopako azken txanpara begira, baina gorputzak espero baino hobeto

erantzun dit.

Uribe, Narbaiza... zure aurkari nagusiak izan direnak aurretik ezagutzen zenituen?

I.U.: Nora Narbaiza eta Zutoia Odriozola aspalditik ezagutzen ditut. Leire Uribe iaz ezagutu nuen. Gogoan dut gerora, Bediako Kolazino lasterketan Uribe eta biok batera heldu ginela helmugara. Euskal Herriko Kopako lasterketa bat zen eta sekulako maila zegoen. Oso lasterketa ona egin genuen, espero barik, eta oso pozik egon ginen. **Irazu, zure aurkari nagusia Ander Jauregi izan da.**

I.A.: Bai. Aurten arte ez nuen

I. URKIAGA: "GORBEIA SUZIEN EGIN ONDOREN, GORPUTZAK ESPERO BAINO HOBETO ERANTZUN DIT"

ezagutzen. Lehenengo lasterketan ezagutu nuen, 7 Pagon. Hirugarren egin zuela uste dut. Gerora, hainbat lasterketatan orporik orpo ibili gara, beti antzerako denborak egiten. Sorginen Lasterketan justu nire ostean sartu zen, laugarren. Borroka polita mantendu dugu.

Sorginen Lasterketan lehenengo igaro zinen Anboto gainetik. Garapena ez zen hain urrutia egon.

I.A.: Anboto lehenengo igaro nuen, bai, minutu biko aldeagaz, baina aldats behera Mikel Zabalegik eta Imanol Goñik aurreratu egin ninduten. Hala ere, oso pozik nago hirugarren postuagaz. Iazko denbora hobetu egin nuen, gainera. Iaz eta orain urte bi ez nintzen pozik geratu nire errendimenduagaz. Neure buruagaz piketxo horregaz parte hartu dut aurten, hobeto egin guran, eta, zorionez, ondo irten zitzaidan.

Biek etxeko lasterketak irabazi dituzue, Mallabikoa eta Zornotzako. Zelan gogoratzen duzue?

I.A.: Etxeko lasterketa irabaztea berezia da beti. Gainera, aurten iazko denbora hobetu gura nuen eta 30-40 segundogaitik lortu nuen. Kontua estu zegoen eta topera joan nintzen helmugaraino.

I.U.: Niretzat aurtengoa bereziena izan da. Lasterketan ikusten nuen irabazi nezakeela, eta helmugara heltzen nenbilela "Ostras, irabazi egin behar dut", jabetu nintzen. Senitartekoak, lagunak... ikusten nituen eta ezin dut berbekin deskribatu sentitu nuena. Neure buruari esan nion ez nuela negarrik egingo, baina helmugara sartu nintzenean ezin izan nion emozioari eutsi.

Kopa barrutik bizi izan duzue. Zer-esana eman du?

I.A.: Askok gustatzen zaidan ekimena da. Esango nuke batez ere karrera txikiei egin diela mesederik handiena. Kopak korrikalari gehiago erakarri ditu horrelako lasterketetara.

I.U.: Lasterketetan jende gehiago ikusi dut. Normalean lasterketa laburretan jende gehiago aritzen da, baina Koparen eraginez distantzia luzeak egitera korrikalari gehiago animatu dela uste dut. Kanpoko jendea ere etorri da. Esaterako, Lola Oyarzabal gasteiztarra da, taldekidea dut Gaikarren, eta Kopa egin du. Korrikalari asko erakarri du.

Olazarren zuzeneko emankizunekin hasiko dira

PILOTA Olazar pilota txapelketa aurrera doa apurka eta datorren astean binakako azken final-laurdena jokatu dute. Aingeru Bernaola mañariarra izango da protagonistetariko bat. 'anboto.org' atariak zuzenean emango du partidua

J.D. ZALDIBAR

Zaldibarko Olazar pilota txapelketa unerik beroenean sartzen dabil eta azaroaren 6tik aurrerako partidu guztiak zuzenean ikusteko aukera egongo da. Antolatzaileek zuzeneko emankizunak egingo dituzte eta *anboto.org* atarian ere ikusi ahal izango dira, 21:00etan. Zuzeneko saioetan Aritz Gallastegi arituko da esatari lanetan, eta Enrike Agirrebeitia komentarista. Kalitatezko emankizunak izango dira, hainbat kamaragaz eta errepikapekin.

Final-laurdenak

Datorren egunean binakako partidu bi jokatu dira. Irabazleak finalerdietara sailkatuko dira. Batean Aingeru Bernaola mañariarrak jokatu du, Iker Egigurenegaz. Orain-tsu, Lezoko pilota txapelketa irabazi dute biek. Mañariarrak esan du "ilusioz, gogotsu, eta sasoi betean" dagoela. Badaki



Aingeru Bernaola finalerdietara sailkatzen ahaleginduko da.

partidu gatxa izango dena, aurkariak Asperen orbitan dauden pilotari bi direlako: Apezetxea eta Santesteban. "Guk dena emango dugu aurrera egiteko", adierazi du. Binakako beste partidua honako hau da: Ka-

rregal eta Elorz Hormaetxeren eta Garmendiaren aurka. Bernaolak beste hitzordu garrantzitsu bat ere badu azaroan. 24tik 30era Nazioen Liga jokatu du Bilbon, euskal pilota selekzioa ordezkatuta.



Esku pilotako eta paleta gomako txapel bana egongo da jokoan Tornosolon.

Trinketeko finalak jokatu dituzte, gaur, Tornosolon

TRINKETA Finalean ez da eskualdeko ordezkariak izango. Arroitauregik ezin izan zuen Okariz mendean hartu

J.D. ABADIÑO

Kepa Arroitauregiren oroime-nezko seigarren txapelketako finalak gaur jokatu dituzte Abadiñoko Tornosolo trinketeen, 18:30ean.

Finalean ez da Durangaldeko pilotaririk izango. Esku pilotan Ibai Arroitauregi iurretarrak, Keparen semeak, gertu izan zuen sailkapena Gaizka Okarizen kontrako finalerdian, baina lehenengo seta irabazi eta gero (15-9) bigarrena galdu egin zuen, abantaila handi bati ihes egiten utzita (11-15), eta hirugarren set erabakigarrian pilotari nafarra

nagusitu zen: 5-3. Okarizek Jon Jara izango du aurkari finalean.

Paleta goman

Paleta gomako finalerdietan, bikote protagonista biek oso partidu polita eskaini zuten beste behin ere. Lehenengo seta ikusgarria eta emozioz beterikoa izan zen. Azkenean, Darribat eta Gorostiaga sailkatu ziren finalerako, Larrarteri eta Goyenetcheri 15-13 eta 15-5 irabazita. Finalean Montserrat-Murillo bikotea izango dute aurrean. Ez dago faborito argirik eta oso partidu estua aurreikusten da.



JOKALDIA

MIKEL CANIBE ANSORENA LARRASOLOETA XAKE TALDEA

Urriko txapelketak, mugarri

Larrasoloeta Xake Elkartek harrotasunez ospatu zuen bere 40. urteurrena 2024an, eta urte bereziki bizi eta esanguratsua izan du aurten ere. Urtean zehar hainbat jarduerak antolatuz, horien artean bereziki nabarmen-tzekoak dira bere lehen xake aktiboko txapelketa eta egindako emakumezkoen lehenengo xake txapelketa. Ekitaldi hauek klubaren ibilbidean mugarri izan dira, eta era berean, kide guztien ahalegina eta dedikazio kolektiboa islatzen dituzte. Denen ilusioari eta parte-hartzeari esker, bi lehiaketak aurrera eramatea lortu da, eta Durango berrirako ere euskal xakearen erreferente bihurtzen ari da.

Azpimarratzekoa da, xakean emakumeek eta gizonek elkarrekin jokatzen badute ere, emakumeen presentzia oraindik oso txikia dela. Euskadiko Xake Federazioaren datuen arabera, hamar jokalaritik bakarra da emakumea, eta horrek erakusten du emakumeen parte-hartzea sustatuko duten ekimenak bultzatzen

jarraitu behar dela. Hori dela eta, emakumeentzako txapelketak antolatzeak garrantzi berezia du, ikusgarritasuna ematen baitie eta emakumeen presentzia sustatzen baitu oraindik gutxiengoa diren arlo batean. Euskadin horrelako txapelketak urriak direnez, ekimen honek are balio handiagoa hartzen du.

Emakumezkoen Xake Txapelketa urriaren 4an egin zen, eta 20 jokalarik eman zuten izena. Guretzat oso berezia izan zen, izan ere, gure ordezkari batek, Maitane Varasek, bigarren postua eskuratu zuen.

"EMAKUMEEN TXAPELKETAK EGITEAK GARRANTZI BEREZIA DU, IKUSGARritasuna EMATEN DIELAKO"

Bestalde, xake aktiboko txapelketa —partidan jokari bakoitzak 10 minutu ditu jokatzeko, denbora horretan mugimendu guztiak egin behar direlarik— oso berezia izan zen, ez bakarrik izaera ofiziala duelako (nazioarteko rankingerako puntuagarria baita), baizik eta orain arte Euskadin horrelako txapelketa bakarra egon delako.

Erantzuna bikaina izan zen: 69 jokalarik parte hartu zuten, giro bizia sortu zen eta klubak maila bikaina erakutsi zuen, bai antolaketan bai lehiaketan. Gure jokalarietako batek, Rodrigo Sarraldek, bigarren postua lortu zuen.

Etorrizunera begira, Larrasoloeta klubak horrelako ekitaldi gehiago antolatzeko asmo sendoa du, parte-hartzea eta eskualdeko xakearen hazkundera sustatzeko helburuarekin. Gainera, randomchess (ausazko xakea) bezalako modalitate berriak gehitzeko aukera aztertzen ari gara.

GUARDIAKO BOTIKAK

URRIAK 31, BARIKUA
09:00-09:00
Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
AZAROAK 1, ZAPATUA
09:00-09:00
Bazan, Uribarri 5 - Durango
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
AZAROAK 2, DOMEKA
09:00-09:00
De Diego, Inbaurrondo 22. - Durango
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
AZAROAK 3, ASTELEHENA
09:00-09:00
Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
AZAROAK 4, MARTITZENA
09:00-09:00
Mugica, Andra Maria 9 - Durango
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
AZAROAK 5, EGUAZTENA
09:00-09:00
Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
AZAROAK 6, EGUENA
09:00-09:00
Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ZORION AGURRAK



GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
☎ 661 40 14 00
f Gozatu Gozotegia
@ gozatugozotegia

Urte askotarako!

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:


Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.

Posta elektronikoa
Mezua bidali zorionagurrak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak
Etorri zaitetz Anbotoren ordezkaritzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

EGURALDIAREN IRAGARPENA



Urriak 31, barikua.

Zapatua, 01



Domeka, 02



Iñigo
Zorionak, **Iñigo!** Urriaren 28an 9 urte egin zenituen. Egun polit bat pasatu izana espero dugu. Etxekoen partez, besarkada eta muxu handi bat!



Ekain Bengoetxea
Ekain Bengoetxea durangarrak Espainiako Orientazio-Sprint txapelketa irabazi du joan den asteburuan. Zorionak! Gora, txapeldun!

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak



Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA


E.S. Otxandio E.S. Iurretza



Urkioil gasolindegia
ibilgailuetarako
aukerarik onena.

- GLP, butanoa, kanpin-gasa.
- Kotxeak garbitzeko aukera.
- Barbakoak egiteko ikatza, izotza, platerak...

📍 BI-623, 48213 IZURTZA

📍 BI-623, 48210 OTXANDIO

INMOBILIARIAK



SAN INAZIO AUKERA. Garajea.



IURRETA 3 logela, komuna, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza.



BASERRIA BERRIZTATUA. 436 M2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila.



ZALDIBAR 3 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. Balkoia. Ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du, ekialdea-mendebaldea. Eguzkitsua. BERRIZTATUA.



DURANGO 5 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Bizitzen sartzeko moduan.



ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO
Goienkalea: Apartamentua. 60 m2. Berriztatzeko. **125.000 €**
Kurutziaga: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatzeko.
Barrenkalea: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.
Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.
Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.

ATXONDO
Atxondo: 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. 2 balkoi. Igogailua. Gasa.
Atxondo: 3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.

LURSAILAK SALGAI
Urrutxua: 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.
BASERRIAK ETA TXALEIAK SALGAI
Muxika: Urrutxua: 90.000 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria. **90.000 €.**
Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m2. Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.
Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Atxondo: Marzana auzoan. 7.500 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria.
Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIKIRUAN ABADINO
30 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.
DURANGO
Ermodo kalean. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIKIRUAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
Matierna: 460m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.
Elorrio: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI BERRIZ
Berriz: Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.



DURANGO Askatasun Etorbidea: 63 m2. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna duxarekin. Berrikuntzak behar ditu (lehiok aldatuta) Birbanatzeko aukera ematen du. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du, iparraldea. Argitsua eta etxebizitza altua. Zonalde lasaia, berdegunez inguratuta. ITE-a pasatuta.



DURANGO Antso Estegiz: 42,50 m2. BERRIZTATUA. Egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna duxarekin. Egoera ezin hobean. Exe erdiak kanpora ematen du, iparraldea. Erdigunetik gertu. 6 m2-ko ganbara. ITE-a pasatutakoa.



DURANGO San Roke: 66,40 m2. + 250 m2 terraza. Halla, egongela, sukaldea, 2 logela, eskegitokia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialdea) Argitsua. Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. EGOERA ONEAN. Garajea. Negoziagarri.



MATIENA Trañabarren: 94,8m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela (horietako bik horma-armairuak dituzte) komuna, bainugela eta despentsa handia leihoarekin. Toldo automatikodun balkoia. 14,25 m2-ko ganbara. Aparteko garaje-partzela erosteko aukerarekin.



BERRIZ Agirre Lehendakariaen pasealekua: 85m2. Halla horma-armairuarekin, egongela, sukalde jantzia handia, 3 logela eta komuna berriztatua duxarekin eta leihoarekin. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialde-mendebaldea) Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Teilatua eta fatxada eraberritua (SATE) eta duela gutxi instalatu den igogailua du.



BERRIAK DURANGO
Antso Eztegiz: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta komuna. Balkoia. **160.000 € / E.E.Z=F**

DURANGO
Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Juan Antonio Abasolo: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Konpontzeko. **170.000 €/ E.E.Z=F**

Juan de Olazaran: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

Komentu kalea: 3 logela, egongela, sukaldea, sukalondoa eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Igogailua. garaje itxia aukeran. **280.000 € / E.E.Z=E**

ABADINO
Dendarikoa: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**
Eskolako: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 325.000 € ORAIN 300.000 € / E.E.Z=G**

ATXONDO
Artekalea, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. **300.000 €.**

BERRIZ
Murgoitio auzoa: Berreraikitzeo baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**
Eitua: Berreraikitzeo baserria lursailarekin. **LEHEN 350.000 € ORAIN 330.000 €**

GAIA
Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA
Bixente Kapanaga: Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 95.000 € ORAIN 80.000 € / E.E.Z=F**

GAHAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO
DURANGON SALGAI
Alluitz: Garaje itxia. **24.000 €.**
Kurutziaga: garajea. **18.000 €.**
Kurutziaga: Garaje itxia eta aukera ezberdinak.
Madalenoste: Garaje itxia eta trastelekua. **42.000 €.**

DURANGON ALOKAGAI
Muruetatorre: Garajea. **75 € / hilean.**
Antso Eztegiz: **45 € / hilean.** Motorrentzat egokia. Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI ALOKATZEKO DURANGON SALGAI
Landako etorbidea: 50 m2-ko lokala. **600 €/hil. / E.E.Z=E**

Komentu kalea: 30m2-ko lokala guztiz berriztuta. **65.000 € / E.E.Z=F**
Aliendalde: 285 m2-ko pabilioia. **250.000 €.**
IURRETA
Zubiaurre: 11m2-ko lokala. **20.000 €** negoziagarriak.
Padureta: 240 m2-ko pabilioia. Salgai: **370.000 €** Alokagai: **1.680 € /hilean.**



LAU-HORTZA

MARKEL
SANCHEZ ZELAIA

Gabon Zaharra tradizionatu

Gaur Gaba Baltza ospatuko da Durangon, hirugarrenez. Komunitatea eta euskara ardatz, ehunka ume eta gaztetxo batu ziren aurreko urteetan, eta gaur ere arrakastatsu dator gaurik ilunena. Halloweenek inbadituta, duela gutxi pentsaezina zirudien horrelako ohitura bat berpizteak, baina hemen dago, bizi-bizi.

Norbaitek esango du Gaba Baltzak ez duela tradiziozko Durangon, eta, seguruenik, egia izango da, sekula ez da horrela ospatu. Bi hilabete barru Gabon Zaharra ospatzen egongo gara, eta nire etxean, oroimena du-danetik, tradizio ditugu mahatsak eta Ramón García. Norbaitek asmatuko zigun, diot nik, tradizio espainiar hori.

Duela aste batzuk, Taupada jardunaldietan, Xamar idazleak zera esan zuen: urtea, hitzak dioen moduan, ur ziklo bat dela, eta Euskal Herriko leku askotan ur berria edanez ospatzen zutela urte berria. Apurka galtzen joan den ohitura, gaur egun oraindik Urdiainen, Bakaikun eta Etxalekun ospatzen dutena, herriko iturrian ura edanez. Erronka jo zigun: animatu aurretik hori egitera, seguruenik 5 izango zarete, datorren urtean 15, eta 6 urte barru irudiko du betidanik egin izan dela. Soilik euskaratik uler daitekeen ohitura da; gauza ederra, mahats batzuen aldean.

Tradizioak asmatzeko daude. Bi hilabete barru, Andra Mari-ko iturrian, egingo dugu?

AKUILUA

"Askotan ez dakigu gure produktua ondo saltzen"

MIKEL GARAIZABAL PILDAIN ARDO KULTURAREN DIBULTZAILEA ETA ENOLOGOA Hostalaritza eta Turismo ikasketak amaituta, Enologo eta Mahastien Zaintza eta Sommelier ikasketak egin zituen. Ardo titiritero legeaz ikusten du bere burua

Aitziber Basauri ELORRIO

Mikel Garaizabal (Elorrio, 1972) ardo dibulgatzailea da. Gustatzen zaiona eta ogibide duena plazaratzen du, askotariko erremintak baliatuta: hedabideen bidez, liburuak idatzita, dastatze saioak eginda... Arabako Errioxako ardoagaz, euskal sagardoagaz eta txakolinagaz lan egiten du.

Ardoaren 'titiritero' legeaz, zein da zure ardura?

Botila baten atzean gauza asko dago. Historia, kultura, paisaia, lurra, lehen sektorea, baserria, tolarrea, arkitektura.... Bada, hori guzti hori transmititu gura dut. Arabako Errioxako ardoa, euskal sagardoa eta txakolina euskal gastronomiaren parte dira eta kanpora goazenean erraza da gure produktua zabaltzea; baditugu argudioak. Kontua da askotan ez dakigula produktua ondo saltzen. Euskaldunori chauvinista sinpatiko puntu bat falta zaigula uste dut. **Orain 28 urte egin zenuen lehenengo ardo dastatzea, Durangon.**

Berbaro elkarteak emandako aukera eskertu gura nuke. Ez zegoen ardoa dastatzeko saiorik euskaraz, eta erronka horri heldu genion. Gero, terminologia sortu genuen, euskaraz ardoui



"KONPAINIA ONEAN ETA NEURRIAN HARTUTA, ARDOAK BIZIPOZA EMATEN DU"

buruzko lehenengo liburu argitaratu... Trapolina izan nuen, eta horregaitik nago hemen 28 urte joan eta gero ere.

Urte hauetan zenbat dastatze saio! Bai! 7.000 baino gehiago kontatu ditut. Munduko hainbat herrialdetara joatea tokatu zait.

Kontinenteen artean Ozeania baino ez zait falta bisitatzea.

Euskal produktuekin beti.

Behin enologo famatu batek esan zidan: 'Mikel, denetik egin, baina espezializatu zaitetz lurralde batean'. Euskalduna izanda, zer hobe euskal produktuen enbaxadore izatea baino. Hasieratik sinistu dut gure produktuetan. Arabako Errioxa munduko eskualderik onenetakoa da ardoa ekoizteko, eta munduan bakarra da txakolina. Dituen ezaugarriak kontuan hartuta, etorkizun handia dauka. Bestalde, euskal sa-

gardoan iraultza polit bat gertatzen dabil azken urteotan.

Askok aldatu da ardoaren kontsumoa? Ardoaren munduan dagoen krisia ez dut inoiz ezagutu. Hiru dira arrazoi nagusiak: kontsumo ohiturak aldatu dira, geroago eta ardo gutxiago edaten da; aldaketa klimatikoak zuzenean eragin die upategiei; eta, azkenik, Trumpen muga zergak eta euroaren balioa dolarragazko. AEB merkatu indartsua izan da.

Orain Japonian zaude eta Jordaniara zoaz azaroan. Euskal produktuek harrera ona dute kanpoan?

Dastatze saioak euskal gastronomiagaz lotuta daude. Eta hori jatetxeak eta sukaldariak baino askoz gehiago da. Baserriko lehengaiak ipiniko nituzke horren lehen lerroan; eta lehengai horien transformazioan gure amama eta amak aritu dira. Ea Euskal Herrian izan diren galdetuta, askok altxatzen dute eskua, eta hemengo jan-edana aipatzen dute lehenengo. Leku gutxitan jan eta edan daiteke Euskal Herrian lez; gainera, prezio onean. Ondare gastronomiko handia dugu. Gutxi ekoizten dugu, baina kalitatezkoa.

Ardo ona hartzeko, zer hartu behar da kontutan?

Bigarren ardo kopa hartzeko gogo, batzuentzat. Besteentzat, kopa horrek zer esaten dizun, musika nota orekatua eta harmonia ematen dizun. Konpainia onean eta neurrian hartuta, ardoak bizipoza ematen du.

Nogaz hartuko zenuke ardo bat? Ardo ona inspirazio iturri izan da beti, zerrenda luzea da.

Urteko ardoa ala ardo ondua?

Urteko ardo on bat dagoen lekuan, kendu daitezela merkaturako ardo zahartu asko.



Oparitu AnbotoKide txartela

Hileroko zozketa bereziak.
Poltsikorako abantailak.
Deskontuak Anbotoko zerbitzuetan.




Deitu
946 816 558
telefonora